

KANELA USAINA

Logelak etzuen pertsianarik jaitsita, gortina xume zurizkatuek oztopatzen eta moteltzen zuten ilargiaren azken argi-printzak baino. Goizetik zen, azaroko lehen eguneetako goizalba iluna, agian zazpiak-edo.

Ohean etzanik sapaira begira, endredatutako mantek gerri buelta eta izterrak baino estaltzen ez zizkiotela gizon gazteak lotan zuen gorputza eta gogoa. Aurpegi fina hogeita hiru urtetako heldu-gazteari zegokion legez, sudur txikia eta zuzena; bekainetako ilea burukoa bezain errubioa zuen, gariak hartzen duen kolorea, edo urreak edo hare lehortuarena bezain disdiratsua. Matraila-hezurak ondo markaturik, baina ez lar gogorrak; aurpegi erakargarria, ederra, ezpain samurrek adierazten zutena. Goiko ezpainean eta masaila arrosatuetan egun bitako bizar ez eginaren ileak, hauek ere errubioak. Begiak itxita zeuzkan lozorro barruan oraindik.

Biluzik zegoen. Beso bat buru azpitik tolestuta eta besteak bularrean deskantsatzen zuen. Noizbehinka, alde batetara edo bestera biratzen zuen burua iratzartzeko ahaleginak eginez. Ez zuen apenas ilerik ez besoetan ezta bularraldean, azal biluztua ageri baitzen igelek zuten bezala edo umeez legez. Greziar estatua zirudien biluztasunaren perfekzioan.

Bero zegoen gela, aireak ohiko pisua baino gehiago zuen. Kargaturik zen, oxigenoarekin izerdi mikatzaren tantek uzten duten gazi zaporea nahasirik; gorputzen larrutik isuritako molekulek asetzen zuten gelako espazioa eta zintzilik jarraituko zuten harik eta unibertso txiki eta itxi hartako leihoak zabalduak izan arte. Izaren anabasan, oraindik gauean ereindako sexu usainak agintzen zuen eta gizon gaztearen iratzartzeko mogimendu bakoitzarekin usain sarkor hortaz osoturiko lurrin uhinak altxatzen ziren.

— Félix!! Ekardazu ilerako xanpua, mesedez.

Félixek azken murmurioak eginez, nola hala jeiki eta ohe bazterrean eserita burua hazkatzen zuen betazalak altxatu nahirik, begiak ireki eta ormetako afitxeak behatzeko indarrak batuz. Begi urdinak, udako zeru garbiko atal bi. Ez, etzen metafora hutsa, egia borobila baino.

Han zeuden, itsatsita, Donostiako Zinemaldiko filmen kartelak zurezko marko barruan. Bette Davis-en argazki zuri-beltza eta Sharon Stone-en izter amaigabeak, izterrok bata bestearen gainean gurutzaturik, soineko xuri labur famatu harekin. Eta burua argitzen zihoakion heinean, bart izandako gozamina gogoratzen hasi zen.

Nerea, Kimika Fakultateko irakasle katedraduna, berrogeita bat urte eta Félix azken urtetako ikaslea. Filmetako erlazio tipiko eta ohikoa baino ez. Bapateko txinpartak begietan, goriak, sutsuak, esanguratsuak mututasunean, laborategian izandako hurbilketa aztoratsuak, lausenguak eta irriñoak, lizuntasunez betetako hitz gozoak elkarri eskeini, konturatu gabe (hala zirudien) Nerearen gorputza Félixen bizkarrean apoiatzen zenean, konturatu gabe (hala zirudien) Félixen eskua Nerearen gerri bueltatik paseatzen zenean. Eta urriaren hemeretziaren Félix Nerearen bulegora joan zen laborategian bete behar zuen lanari buruzko zerbait galdetzera. Aitzaki hutsa, ondo zekien ikasleak eta halaxe ere ulertu zuen irakasleak.

Félix Nerearen etxean egona zen, hamabost egun baino ez ziren igaro bien arteko lehen topaketatik eta jada bostgarren aldiz igo zen Félix txortan egiteko. Besteetan, Félixen etxean izan zituzten sexu jolas eta amaigabeko gauak. Egunero, han edo hemen, hutsik egin gabe pasiozko lehen egun ahaztezinak larrutan egiten. Bart, hamabosta ospatzeko-edo, afaria izan zuten Nereanean.

Egongelako mahaitxoan zuten janaria eta edaria, biak alfonbra gaineko kuxinetan eserita. Ardo kopa eskuetan harturik topa egiteko, kristalaren bestaldean begi desioz beteak zeuden. Nereak, edan ondoren, ezpainak umel eta disdiratsu zituen, Félixenek bien arteko distantzia eskasa errekorritua zuten Nerearen aurpegira etorri zirenean. Muxukatzen hasi zitzaion Félix ezpainetan, masailetan, lepoan; Nereak lepoa atzerantza bota zuen, jolaskidearen ahoak toki zabalagoa izan zezan, ahoaren hats beroa nahi zuen Nereak eztarri, kokotz pean eta lepoaren luzera osoan. Edalontzia tentu handiz mahaitxoan utziz, Nereak Félixen aho erdi irekirako bidea aurkitu zuen. Mihi punta pasatu zion goiko eta beheko ezpainetatik Félixen aho barnera igaro baino lehen. Eta mihi biak endredatu ziren bataren ahoan eta bestearenean, esku ahurrek kidearen ileetatik laztanak lepo eta bizkarreraino pasatzen zirela.

Nerearen esku trebeek laister askatu zuten Félixen alkondara eta di-da batean bular biluztu laua hartu zuen helburutzat emakumeak. Hozkada ñimiñoak erein zizkion Félix, honi eztarritik arnasketa sakonak ateratzen zitzaizkiola. Nerea Félixen bularrean lanpeturik zegoela gazteak aurpegia emakumearen ile kizkur marroietan sarturik zuen, kizkur bakoitzean zeriola zuen lurrina bereganatu nahirik. Usainketa sakonak, barne hondoetaraino heltzeko modukoak.

Besarkadetatik araketa zehatzetara pasatu ziren bien atzamar puntak: Félixek blusa eta zeraman gona koloreduna kentzen lagundu zion Nereari. Ditizorroa eta kuleroek ere bide berea jarraitu zuten. Bere aldetik, frakak kentzeko laguntza behar zuen eta prest zuen Nerea frakek eta galtzontziloek agerian uzten zuten larru zentimetro oroak muxukatzeko eta laztan goriz errekorritzeko. Félix sutan zegoeneko eta adierazle giza zakila tente erakusten zuen, Greziako atleta garaile bezala.

— Geldi, maitia, itxoin... itxoin. O Félix, itxaron pixka bat, zerbait dut zuretzako-eta. Ixo, ez esan ezer, dena esango dugu baino. Gustatuko zaizu, bai.

Nereak besarkada estu haietatik pixka bat atzerantza egin zuen gorputza eta Félixi begi urdinetara so eginik, zetazko foularra hartu zuen ezer esan gabe eta begi urdinak estali zizkion buruaren atzekaldean morapiloa eginez.

— Orain, maitia... orain beste sentzazio berriak izango ditugu... Emaidazu eskua, ohera joango gara.

Félixek eskua luzatu zion; eskua, besoa, Nerearen gorpuan itsatsirik zegoen Félix iluntasunean, laztanak eta kilimak konpartitzen zutela hiruzpalau pausutara zegoen logelara heldu arte. Nereak Félixen eskuak harturik ohean etzanik egoteko eskatu zion. Mesanotxeko lanparatxoa piztu zuen, argia Nerearentzako izango zen soilik. Eta Félixen gorpua ikusiz kilima goxoak sentitu zituen hankartean, sabelaldean, ditiburuak gogorturik sentitzen zituen. Umeltzen hasi zitzaion potxoleta eta izterrak dardarka jarri. Gaztearen sabeleko giharrek tentsioa adierazten zuten eta beheratxoago zuen zakilak lana behar zuten: Félix prest zegoen plazerreko hodeietan konortea eta oreka galtzeko. Horixe nahi zuen, desio zuen. Hitzik esan gabe, Nerea gaztearen gainean eseri zen, zaldika balego bezala.

Nerearen azala goizeko ihintzarekin bezalako freskotasunean mantentzen zen. Ahoa inguratzen zuten ezpainen ematen zioten bizitasuna aurpegiari, ezpain haragitsuak, samurrak, sendoak, irmoak; gehienetan irriño trufatzaileari lotuta, baina baita amorantearen desioak asetzeko prestuak. Begi marroiak, ile kizkurra bezala, adi zeudenak eta orain Félixen gainean lizuntasunez disdiratsu zituenak. Ditiak agerian ditiburu marraoi ilunak erakusten zituzten, hauek ere Félixen zakilarekin bat eginik goruntz apuntatzen zuten. Gorputz xarmanta zuen

Nereak eta Nereak bazekien hori: oraingoan Félixi oparitzen zion bere haragia, Félixena hartzen zuen trukean.

Félixek ez zuen ezer ikusten, baina Nerea aurpegira hurbiltzen zitzaion bakoitzean halako berotasun uholdeek betetzen zioten bere espazioa. Lehenik, Nereak ile kizkurrak pasatu zizkion aurpegitik Félixek arnasketa urdurietan emakumearen ile-matazetatik zintzilika isurtzen zitzaizkon lurrinek gaztearen usaimen organoa lili morez eta limoi urez asetzen zizkiotela.

Zetazko zapia kendu gabe, Nereak bere lepoa hurbildu zion Félixi, honek larrosa finetako hosto kulunkarien laztanak senti zitzaion. Eta Nereak mihi punta pasatu zion kokotz azpitik lepoan barna, sorbalda borobilduetan, Félixen giharrak teinkatzen zirenean: esentziaz beterik aurrekaldean sentitzen zuen lurrin potoa presaka hartu nahi zuen ikasleak, hartu eta bereganatu, irentsi, xurgatu. Félix, luzera osoan etzanik zegoen ohe gainean eta Nerea honen sabel gainean zut zegoen zakilaren presioa nabaritzen zuen hankartean.

Félixenganako hurbilketa bakoitzak honen taketa presiotik aske uzten zuen eta harro altxatzen zen sapaira, zakil-buruak gero eta kolore gorrixkatuago eta disdiratsuagoa hartzen zuen. Baina Félixek ezin zuen halako miraririk ikusi Nerearen eskuetan baitzituen zentzumen oroak-eta. Zakila ere.

Nerak zer bait hartu zuen mahaitxo gainetik, momentu hartararte ezkutaturik zuena. Zukaitz adartxo ñimiñoa bezalako zen, marroia. Mogimendu azkarrekin zer bait hori pasatu zuen ditiburuetatik eta ditiek osotzen zuten kurbatura perfektutik. Ditien eta zilborraren arteko espazioan ere lorratzak utzi zituen Félixi fruitu haiek eskeini aurretik.

— Orain, laztana... zer usaintzen duzu?

Ditien arteko zidor leuna Félixen aurpegira heldu zen. Esku banarekin hain samurki eta gozoki zituen emakumearen ditiak harrapatu zituen. Ditien pisua,

borobiltasuna, berotasuna, leuntasuna eta izenlagun horiekin batera burbuila txikietan haurzarotik ezagutzen zuen usain etxekoia ailegatu zitzaion: kanela usaina, esne epela kanela punttu batez, memorian gorderik zuen usaina.

Ditiak hartu eta mihiaz miazkatu zituen, han eta hemen pausatzen zela, bihotzaren taupadek esaten zioten “*azkar, azkar*”, baina Félixek une haiek gozatu gura zituen, segundu eta larru zentimetro guztiak irentsi nahirik. Nerea ez zegoen geldi: bularretako usaimena oparitu zion heinean, eskumako eskuak atzera egin zuen eta Félixen lagun txikia (orain haunditurik) igurtzen zuen astiro-astiro, gora eta behera, mogimendu bakoitzean nola izerdiz eta gorputz fluidoaz irristakorragoa bihurtzen ari zen ulertuz. Félixen pelbisak zaldikako mogimenduekin erantzun zien Nerearen igurtziei, erritmo bateratsua izan arte.

Nereak Félixen gorputzaren ikuspegi panoramikoak utziz kidearen aurpegirantz mogitu zen, hanka tarteko potxoleta goritua Félixen aho parean pausatuz. Ez zuen honek beste seinalerik behar izan lanari ekiteko: pubiseko ile motzetan hasi zuen bidaia, ile marroi kiribilduetan. Bertan bainila esentziak aurkitu zituen Félixek beste garai batetan, beste bizitza batetan baratzain adituek halako landareak erein izan balituzte bezala, askozaz geroago Félix uzta biltzaile izango zelarik, usain, esentzi eta lurrin erakargarri haiekin plazerreko bideak aurki zitzaizkien Nerearen gorputzean barna.

Nerearen izterrek presioa sortzen zuten Félixen masailetan; gaztearentzat etzen batere deserosoa sortzen zuten indarra, ez zuen apenas sentitzen beste gauza erakargarriagoak baitzituen aurpegi parean-eta. Mihia lanean eta eskuak aske zituen Nerearen ipurdi-masailetan animalien erpeak legeaz atximurkadak eta laztanak, ferekak eta erpekadak uzteko, denek batera dantza egin zezaten. Félixen esku antsiosoek Nerearen bizkarra errekorritzen zuten atzamarrek bizitza propioa lortu izan balute lez.

Zenbat eta gehiago busti Nerearen potxoletako ezpainen tamaina handiagoa betetzen zuten. Nerearen aurpegian mihi zurrupada bakoitzarekin masailetan kolore gorrixkatuak nola landatzen ziren sentitzen zituen irakasleak. Kimika erreakzioa, plazerraren lobuloek hormonak isurtzen zituzten odol korrontera-eta. Momentuz itsuturik izan arren, Félixek argi zeukan jarraitu behar zuen bidea eta bizkarra errekorri zion hotzikarari ongi etorria emanez, pubiseko oihana atzean utzi eta kobazulo hezeetera desbideratu zituen mihiaren energiak. Poliki hasieran esploratzaile gisan, laister egin zuen talka klitoriarekin, jainkoen oparia, zut eta irmo odol beroko zainez inguratuta, itsasoko bustidura gaziaz blaitua. Félixen eraso bakoitzarekin Nerearen izterren presioak gora egiten zuen, bizkar hezurra uhinak bezala tolestu eta luzengatu egiten zitzaioela.

Jadanik, Nereak aske utzi zuen Félixen soldadutxoa eta ikasleak behelaldeak xurgatzen zizkion tartean, hasperen eta arnasketa sakonekin mogimendu erregularrak eginez bizkarra tolesten zuen, sugearena eginez. Esku propioekin ditietan laztanak eginez eta gero Félixen ileetara eskuak pasatu zituen, buruko ileak zehatz atera nahi izango balizkio lez. Tirakada bakoitzean, Félixek hozkatu egiten zion klitorian eta bien erritmoa azkartu egin zen, bikotearen hats beroak (gori-goritan) azaletako tolesduretan kokatzen zirenean.

Félixek ezin zuen gehiago eta Nerea helmugara heldu aurretik, gizon gazteak zapladatxo esanguratsua eman zion ipur-masailean eta bere mihiari lan etena eskaini zion. Burua atzera eginez, begi estaliak goruntz bideratu zituen Nerearen begiekin topo egiteko. Zapia kentzeko keinua egin zuen, baina emakumeak ez zion baimenik eman. Ez, gau hartan Félixek ez zuen ezer ikusiko begiez, beste zentzumenak zituen harremanetan jarduteko.

Nerea Félixen birikek zuten mogimendu azkarraz ohartu zen, airez beteriko puxika lez altxatzen ziren, segituan despuxketa eta berriz antsioski gora. Nereak etzanik mantentzeko eskatu zion. Hala eginez, irakasleak mihiarekin listu lorratzak utzi zizkioin Félixi: gizonaren ditiburu txikietan, ordokia sortzen zuten bularretan, sabelaldeko sahietsetan eta beherago oraindik gaztearen zakil umeldua hartu zuen esku artean, beste eskuaz barrabilzakuan zegoen altxorra hartu eta atzamarrekin ume jolasketan aritu izan balitz lez, kristalezko kanikak eskuan biraka izango balitu bezala.

Potro-zakua askatu gabe, mihia pasatu zuen zakil-burutik borobiltasun osoan. Félixek eskuak Nerearen ileetan endredaturik zituen eta irakaslearen mihi ikutu bakoitzarekin arnasketa eta gihar teinkatzea bateratzen ziren. Halako batean, Nerearen mihiaz egindako laztanak aho irekiaz ordezkatu ziren: zakilaren burua emakumearen ahoan desagertu zen, aho barneko hezetasun eta beroak beroago jarri zuten gizon gaztea. Hitz eta erdi-hitzak murmuriatzen zituen, zentzu gabeak akaso, sentitzen zuen plazerraren deskribapenak agian.

Zakil-burua zen lehena, baina xurripada goxoak eman ondoren, Nereak geldiuinetxo egin zuen: arnasketa sakona eginez, ahoa ireki eta zakil erdia baino gehiago sartu zuen ahoan. Buruak gora eta behera egiten zuen eta ahoak eta ezpaineak bide bera jarraitu zuten.

Félixek zeruan ikusten zuen bere burua, Nerearen ezpaineak xurgatzen ziotenean azken molekua, azken fluido atera nahian. Prest zegoen jadanik Félix, baina jolaskidearekin batera korritu nahi zuen. Kokotzean egin zion seinalea *“nahikoa da, laztana”* eta Nereak ahoan preso zen taketa askatu zuen. Félixen aldamenean etzan zen arnas estuka eta gaztearen bisaia arakatu zuen. Izerdi patxetan zegoen, zetazko foularrean ile bustiak itsatsita zeuzkan, masailak gorri-gorri eginda.

Gizon gazteak emakumea kaderetatik hartu zuen eta posizio egokian jarri. Esku batez tente zirauen zakila hartu eta bestearekin Nerearen potxoleta arakatu zuen. Zakila sano umel zuen eta emakumearen alua ere fluidoz beterik, beraz bultzakada txiki batez oso erraz sartu zion zakil osoa Nerearen gorputzean. Nerea bustirik zegoen, klitoraldeak laister sentitu zuen gizonaren tramankuluaren presioa. Aluko paretetan igurtziz, zakil erdia kanpora eta berriro barrura, zoramena eskuko atzamarrekin eusteko moduan zen Nerea. Félixen pelbisak ez zuen etenik, mogimendu azkarragoak eta bortitzagoak ereiten zizkion emakumeari hankartean.

Eta Nerea ireki zen, udazken usainaz. Udazkeneko fruita heldua urriko pikoak bezala, barne ezti ugaria hedatzen denean atzamarren artetik; urriko mahatsondo helduen usaina atsikirik zuen gorputz osoan eta hauek bezain goxoa zuen barnea; urriko zizen lurrin delikatua, baso hosto gorrixkatuetan egongo balitz lez. Urriko usapalen hegaladiak sentitzen zituen aluan.

Ezin gehiago jaso, Félixek Nereari belarrondora xuxurlatu zion:

— Banoa, banoa... orain korrituko naiz zure barnean... O Nerea, Nerea... ezin dut gehiago... hor doa, hor doa...!!!

Eta Nerea ere fluido tarteko usainetan, hankartean jaio eta sabeletik gora eztarritik atera zitzaion garrasi ahuldua utzi zuen logelako espazioan. Orgasmoko argi ñir-ñirtarrek, une xume batez, gihar oroak gainditu eta lasaitu zizkioten, eskuekin maindire izerdiz tximurtuak eusten zituela, begi irekiekin maitalearen bisaia errubioan plazerreko irria ezagutzen zuen.

Orain bai, orain Nereak Félixi zetazko zapia kendu zion eta mahaitxoko argiarekin biek errekonozu zuten kidearen begietan desioaren leherketa, desioaren estandak ondorioz dakarren lasaitasun kosmikoa. Gorputz biek etzanda gora begira, apenas ikutzen zirela. Nerearen eskuak Félixena bilatu

zuen indar barik apenas: atzamarrak ikutu zirenean korapilatu ziren ezer esan gabe. Arnasketa sakonek airearen mogimendua kulunkatzen zuten.

— Félix, xanpua arren. Lotan al zaude, maitia?

Félixek eskua pasatu zuen begi eta masailetatik, eta ezin zien izterrak eta sabela errekorritu zizkioten dardarei aurre egin. Ohetik jeiki, pasabidean zegoen armairu txiki batetik xanpu potea hartu eta komunera sartu zen.

Ikuskizun ederra, alafedea! Nerea biluzik zegoen, gerritik gora makurturik, ileak konketako txorrotaren azpian sarturik. Beraz, Félixek ikusi zuen lehena irakaslearen ipurdi-masailak ziren, ederrak, mardulak, leunak, borobilduak. Hanka tartetik pubiseko ileak igartzen zitzaizkion. Bi pausu emanaz, Félixek Nerearen bizkarrean egin zizkion atximurkadak eta hozkadatxoek marka apalak ere ikusi zituen. Halako ikuspegiak, ximista argia izango balitz bezala, Félixek soldadutxoa iratzartu zuen eta soldadutxoa kapitaina izatera pasatu zen segundu gutxitan. Atzekaldetik hurbildu zitzaion eta xanpua konketaren gainean utziz (*“hor duzu xanpua, ea zer gehiago aurki genezaken...”*) bere kapitaina emakumearen hankartera sartu nahi zion. Eskuak Nerearen kaderetan jarri zituen eta pelbisa mugikor, aurrera eta atzera.

— Félix, ez, ez dugu astirik. Fakultatera joan behar dut... lana... gauean jarraituko dugu, baina orain ez da momentua.

Gaztea bere saioetan gelditu zen, *“goizean ez dago fandangorik, beno gauerako utziko dugu”*. Félix sukaldera abiatu zen biluzik eta kafetegia eta katiluen zarata gainetik, galdetu zion:

— Nerea, neska, zer nahi duzu, kafe beltza ala capuccinoa?

— Capuccinoa, ez bazaizu inporta. Eta jarriozu kanela hauts pixkatxo bat.

— Kanela... jakina, laztana.